

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

63/2020 Foru Agindua, otsailaren 27koa. "Gorbeiako Parke Naturalean telefono mugikorreko deien banagunea eraikitzeako proiektua"ren ingurumen inpaktuaren txostena egitea

"Gorbeiako Parke Naturalean telefono mugikorreko deien banagunea eraikitzeako proiektua"ren izapidetzea ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren mende dago, 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 7. artikuluko 2. epigrafeko b) apartatua ezarritakoaren arabera. Prozedura aipatutako legearen 45., 46., 47. eta 48. artikuluek arautzen dute.

Prozedura horren esparruan, 2020ko azaroaren 29an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan idazki bat sartu zen proiektuaren sustatzailea den Telefónica Móviles España SAUK eskatuta, aipatutako proiektuaren ingurumen inpaktua ebaluatzeako prozedura izapidetzen has zedin. Idazkiarekin batera, ingurumen agiria ere erantsi zen. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoak eta interesdunak kontsultatzeko faseari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako baldintzekin bat.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2020ko otsailaren 25ean emandako ingurumen inpaktuaren txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru agindua 21/2013 Legeak 47. artikuluen hirugarren epigrafean jasotako xedapenei jarraituz eman eta argitaratu da ALHAOn.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:


Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, proiektua PEBA edo Banda Zabala Hedatzeko Programan sartuta dago. Programa horren helburua da azkartzea gaur egun estaldurarik ez duten eta aurreikus daitekeenez hurrengo urteetan ere izango ez duten eremuei abiadura handiko eta oso handiko banda zabaleko zerbitzuak emateko gai diren komunikazio elektronikoko sareen estalduraren hedapena. Ildo horretatik, Gobernu Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/2016 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak 2015-2019 legegitzaileko Plan Estrategikoa onetsi zuen. Plan horren baitan, eta, zehazki, lurralde orekaren ardatzaren barruan, lerro estrategiko hau zehazten da: "7.4.2. Araba Konektaturik programa abian jartzea. Guztientzako estaldura Arabako landa ingurunean".

Proiektua telefono mugikorreko deien banagune bat eraikitzean datza. Transmisore-hargailuz hornitutako ekipamenduak izango lituzke banagune horrek, eta antenen bidez jasoko lituzke telefonia mugikorreko sistemen seinale erradioelektrikoak. Ekipamendu guztiak 48V-eko korrante zuzenekoak dira, eta alarmak eta bateriak dituzte matxurez ohartarazteko eta funtzionamendua bermatzeko.

Eraiki nahi den telefono mugikorreko deien banagunea landa inguruneetan jartzen direnen motakoa da. Hauek osatuko dute instalazioa: 3,50 x 4,50 m-ko esparru hesitu bat eta, haren barruan, 25 m-ko sareta dorre bat eta telekomunikazio ekipamenduak edukiko dituen aire zabaleko bastidore bat. Egitura osoa berdez margotuko litzateke, ingurunean hobeto txertatu dadin, sustatzaileak berak adierazi duenez.

1.2. Ebaluazioaren eremu geografikoa:

Eraiki nahi den telefono mugikorreko deien banagunea Ziorraga auzoan kokatuko litzateke (Zuiako udalerria, Araba), 3 poligonoko 706 lurzatiko A azpilurzatian (X: 507.242 /Y: 4.763.558 / Eremua: 30). Banagunearen kokalekua Gorbeiaiko Naturagune Babestuaren barruan dago (Parke Naturala eta Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua da gune hori); zehazki, Parke Naturalaren “Abeltzaintza eta basozaintza sustatzeko eremua” izenekoan, irudi honetan ikus daitekeenez:



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, bi aukera aurreikusi eta aztertu dira proiektu honetarako:

“0” aukera edo ez esku hartzekoa (Ez da hautatu): egungo egoerari eustea ekarriko luke. Horren ondorioz, ez litzateke beteko telekomunikazio zerbitzuak hobetzeko Araba Konektaturik programaren helburua.

“1” aukera (Hautatua): Ziorraga auzoan, 3 poligonoko 706 lurzatiko A azpilurzatian, telefono mugikorreko deien banagune bat eraikitzean datza. Horren bidez, estaldura eta zerbitzu egokia emango zaie Ziorragako eraikinei eta handik hurbil dauden eremuei, betiere AP-68 autopistarekiko mugak errespetatuz eta komunikazio azpiegitura horien estaldura indartuz, bai eta Gorbeiaiko Parke Naturalaren landa ingurunean ere. Sustatzaileak argudio hauek eman ditu azpiegitura hori egiteko beharra justifikatzeko: luraren orografia berezia, Europar Batasuneko Zuzentarauak, Europako Agenda Digitala eta Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorra.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda ageri da, haietatik zeinek erantzun duen adierazita:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Zuiako Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/123 espedientean eta www.araba.eus webgunean dago):

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak adierazi duenez, berak duen informazioaren arabera, proiektuaren kokalekuan ez da egin lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; hortaz, kokaleku hori ez dago sartuta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan. Era berean, hau dio IHOBEk: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean zehaztu du ez dela egin behar kontrol arkeologikorik proiektuaren eremuan, orain arte ez delako hondakin edo egitura arkeologikoen berririk izan. Hala ere, zerbitzuak adierazi duenez, obrak egitean aztarna arkeologikorik aurkituz gero, horren berri eman beharko zaio berehala Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuari, bat etorritz Euskal Kultur Ondareari buruzko 6/2019 Legearekin. Bestalde, zerbitzuak nabarmendu duenez, aipatutako 6/2019 Legearen arabera —nahiz

eta sustatzaileak kontrakoa esan aurkeztutako dokumentazioan—, “jabari publikokoak izango dira EAEko lurralde eremuan ustekabeen edo xede horretarako egindako lan sistematiko baten ondorioz aurkitzen diren interes arkeologiko eta paleontologikoko ondasunak”.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak jakinarazi du proiektuak ez duela eraginik beren balio historiko eta kulturalagatik babestutako elementu edo higiezinetan, eta, beraz, ez duela eragozpenik ikusten proiektu hori izapidetzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak honako hau adierazi du, dokumentazioa aztertu ondoren:

- Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideei dagokienez, proiektuaren eragin eremuan ez dago erregistro horretan sartutako landa biderik.

- Proiektua Gorbeia Parke Naturalaren mugen barruan kokatzen denez, azalera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren antolamendu eremutik kanpo daude.

- Dokumentazioa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

- URA – Uraren Agentziak bere txostenean adierazi du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola, egokitzen joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak. Natura 2000 Sarearen gaineko ondorio negatiboak

Txosten honen aurreko ataletan azaldu dugunez, eraiki nahi den telefono mugikorreko deien banagunea Gorbeia Parke Naturalaren barruan kokatzen da; Gorbeia ekainaren 21eko 228/1994 Dekretuaren bidez izendatu zuten Parke Natural. Beraz, proiektuak honako araudi honetan ezarritakoa bete behar du: Gorbeialdeko Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana (BNAP), Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bidez onetsia, eta Gorbeia Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana (EKZP), Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 276/2018 Erabakiaren bidez onetsia.

Bestalde, Gorbeia Natura 2000 Sareko naturagune babestua da (ES2110009), martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren bidez izendatua, eta, zehazki, Kontserbazio Berezikotako Eremua (KBE); beraz, izendapen horri dagozkion kontserbazio, erabilera eta kudeaketa neurriak ditu, zeinak Gorbeia II. EKZPrekin batera onetsi baitziren aipatutako 276/2018 Erabakiaren bidez.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioak erakusten duenez, proiektuaren egikaritzak (nola obrek hala banagunearen funtzionamenduak) bi ondorio negatibo izango ditu nagusiki: paisaiaren gaineko eragina eta maiztasun handiko uhinen igorpena. Telefono mugikorreko deien banagunea eraiki nahi den lekuan sarbideak badaude lehendik, eta egokiak dira; beraz, bide berriak egin behar ez denez, inguruneke beste elementuen gaineko eraginak onargarriak dira, neurri batean, proiektuaren obra fasean.

Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren arabera (katalogo hori Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onartu zen), proiektuaren jarduketaren eremua “Gorbeia mendigunea” (59 kodea) paisaia bikainean kokatzen da. Horregatik, paisaiaren aldagaiak izugarritzko garrantzia du proiektuak izango lituzkeen inpaktuak aztertzean, eta nahitaez hartu behar dira ingurumenean integratzeko neurriak. Gai honi dagokionez, deien banagunea batez ere AP-68 autopistatik ikusiko da, handik hurbil baitago. Inguru hori antropizatuta dago eta jende askok ikusi ahal izango du banagunea; une zehatz eta labur batean baino ez, hala ere. Beste leku batzuetatik begiratuta, instalazioa paisaian integratuago geratuko da, eta ezkutatuago, kokalekuaren inguruan pinudiak daudelako (*Pinus radiata* espeziekoak). Hurrengo irudian aurkeztutako dokumentazioan sustatzaileak egindako simulazioa ikus daiteke, AP-68 autopistatik begiratuta deien banaguneak paisaian izango lukeen eraginari dagokionez:

Egungo egoera



Proiektatutako egoera



Maiztasun handiko igorpenen inpaktuari dagokionez, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, igorpen horiek eragin arina izango dute. Proiektuaren 5.8 atalak gaiari buruzko azalpenak ematen ditu. Hona zer dioten, zehazki: “telefonía mugikorrek antenen igorpenak erradiazio ez-ionizatzaileak dira, eta orain arteko ezagutzak kontuan izanik, erradiazio horien ondorio fisiko bakarra hau da: irradiatutako ehunaren tenperatura igotzea.” Testuak hau gaineratzen du: “ondorio horiek antenen hurbil-hurbileko ingurunean baino ez dira hautematen.” Gainera, sustatzaileak hau jakinarazi du: “Telefónica Móviles-ek instalatzen dituen telefono mugikorrek deien banagune guztiek zorrotz betetzen dute 1066/2001 Errege Dekretua, zeinak onesten baitu jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, igorpen erradioelektrikoen mugak eta osasuna igorpen erradioelektrikoetatik babesteko neurriak ezartzen dituen Erregelamendua; bai eta CTE/23/2002 Agindua ere, urtarilaren 11koa, zeinak ezartzen baititu erradiokomunikazio zerbitzuen operadoreek azterlan eta egiaztapen jakin batzuk aurkezteko bete beharreko baldintzak.” Azkenik, hau gaineratzen du testuak: “aipatutako kokalekuetako lanetan, zorrotz betetzen da pertsonak igorpen erradioelektrikoetatik babesteari buruz indarrean dagoen araudia.”

Bestalde, katalogatutako intereseko habitaten kartografiaren arabera, proiektua egin nahi den lurzatiaren zati batean 4030 habitata dago (“Txilardi lehor europarrak”). Nolanahi ere, leku horretara egindako bisitan egiaztatu ahal izan dugunez, deien banagunea eraikiko den lurzatian ez dago ez zuhaixkarik ez zuhaitzik; larreetako landare belarkarak baino ez dira hazten.

Gainera, proiektua gauzatzeak onurak ekarriko lizkieke herritarrei. Izan ere, telekomunikazio zerbitzua ematea ahalbidetuko luke, bat etorritik Foru Aldundiak 2015-2019 legealdirako onetsitako Plan Estrategikoarekin; eta, zehazki, lurralde orekaren ardatzarekin, zeinean jasota baitago lerro estrategiko hau: "7.4.2 Araba Konektaturik programa abian jartzea. Guztientzako estaldura Arabako landa ingurunean".

Ingurumen dokumentuan, oro har, egokitzen jotzen dugun inpaktuaren balorazioa egin da, salbu eta proiektuak Gorbeia Natura 2000 Sareko KBE eremuaren osotasunean eta Gorbeia Parke Naturalean izango dituen ondorioen balorazioan. Izan ere, oro har egokitzen jotzen dugun arren, gabezia jakin batzuk ditu, batez ere ez duelako zehazten proiektua Naturagune Babestuarentzat araututako erabilerekin bateragarria den ala ez. Alegia, ez dira aurrez aurre jarri proiektua gauzatzeak berekin ekarriko lituzkeen jarduketak eta honako arau hauetan ezarritakoa: Gorbeialdeko Baliabide Naturalak Antolatze Plana (BNAP), Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bidez onetsia, eta Gorbeia KBERen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana (EKZP) eta kontserbazio, erabilera eta kudeaketarako neurriak, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 276/2018 Erabakiaren bidez onetsiak. Horregatik, nahi-taezkoa da Gorbeia Naturagune Babestuaren Arabako Foru Aldundiko organo kudeatzaileak gaiari buruzko txostena egitea.

4. Babes eta zuzenketa neurriak

Proiektuaren 5.4.2 atalean (30. orrialdea) eta ingurumen dokumentuaren 5.12 atalean (48. orrialdea) —babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak buruzkoak biak—, proiektua ingurumenean integratzeko zenbait neurri jasotzen dira, bai prebentiboak eta bai zuzentzaileak. Egokitzen jo ditugu neurri horiek, eta, beraz, bidezkoa da haiek ezartzea, aipatutako ataletan deskribatutako eran. Nolanahi ere, neurri horiez gain, jarraian aipatzen ditugun neurri osagarriak hartu behar dira, eraginpeko eremuan ingurumen ondorio negatiborik izan ez dadin edo ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezkeen. Hona hemen:

A) Proiektuan jasotako edozein jarduketa egin aurretik, Gorbeia Naturagune Babestuaren Arabako Foru Aldundiko organo kudeatzailearen baimen txostena jaso beharko da, jakin ahal izateko ea bateragarriak diren proiektua gauzatzeak berekin ekarriko lituzkeen jarduketak eta honako arau hauetan ezarritakoa: Gorbeialdeko Baliabide Naturalak Antolatze Plana (BNAP), Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bidez onetsia, eta Gorbeia KBERen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko II. Plana (EKZP) eta kontserbazio, erabilera eta kudeaketarako neurriak, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 29ko 276/2018 Erabakiaren bidez onetsiak. Baimen txostena aldekoa bada, Gorbeia Naturagune Babestuaren Arabako Foru Aldundiko organo kudeatzaileak ezartzen dituen ingurumen baldintzak bete beharko dira.

B) Sareta dorrea eta erradiazio sistema kolore berde ilunez margotuko dira; bai eta instalazioen inguruko hesia eta ekipamenduak eta zerbitzuak edukiko dituen bastidorea ere.

C) Proiektua gauzatzeko behar diren lurrak edo materialak metatzeko edo makinak erabiltzeko, aldeztu aurretik Gorbeia Naturagune Babestuaren Arabako Foru Aldundiko organo kudeatzailearen eta ingurumen organoaren baimena beharko da, kokalekuen egokitasuna ebalua dadin eta neurriak ezar daitezkeen inpaktuak minimizatzeko eta ingurumena leheneratzeko.

D) Obrek dirauten artean, lubrifikatuak edo erregaia biltegiratzeko ontzi estankok, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabili dira. Debeak dago hondakin horiek isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eraman behar zaizkio. Debeak beste material hauek ere hartzen ditu barne: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zaborte baimendutara eraman beharko dira. Sor daitezkeen eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak, ezarritakoa bete behar da.

E) Proiektua sustatzen duen enpresak behar diren garbiketa lanak egingo ditu jarduketaren eremuan; horrez gain, eraikuntza lanek eragindako lurretan ingurumena leheneratzeaz arduratu

beharko da. Ingurumena leheneratzeko lan horien barruan, zeregin hauek egin beharko dira nahitaez:

— Telefono mugikorreko deien banagunea eta sarbideak egiteko okupatu behar den landare lurralde dagozkion lurzoru horizonteak era selektiboan kendu beharko dira; komenigarria da haiek berehala birbanatzea edo, hori posible ez izatekotan, proiektuaren eremuko lekuren batean metatzea, zuhaixkarik edo zuhaitzik hondatu gabe. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak eragindako eremuetan landaretza leheneratzeko eta lurzorua birjartzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra, edota finka edo mendi mugakideetako lurzorua hobetzeko.

— Lurra behar bezala moldatu eta taxutu indusketa lanak egin diren eremuetan, jatorrizko profil topografikoa berreraikitze eta aldatutako gainazalak ingurunera fisiografikoki egokitzeko. Lurra eskarifikatu eta destrinkotu, sakonera egokian.

— Kalitate oneko landare lur geruza bat eman, gutxienez 30 cm-koa, telefono mugikorreko deien banagunearen inguruko lurretan, geroago leku horietan landareak haziko direla ziurtatzeko.

— Aldez aurretik substratua prestatzeko lanak egin: lurra landu, harrotu eta xehatu, behar bezala utzi arte.

— Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezarri, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan eta eraiki den hesitik hurbilen dagoen inguruan. Horretarako, soropil espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, eremu horretako klimarako eta lurzoru motarako egokia.

— Deien banagunearen itxitura perimetral osoaren inguruan zuhaitzak landatu, hesia eta etxola ezkutatu ahal izateko. Inguruetan antzeko zuhaitzak landatuta daudela kontuan izanik, pinu gorria (*Pinus sylvestris*) izango litzateke aukerarik egokiena; espezie ezin hobea da lortu nahi den helbururako.

F) Instalazioak erabiltzeko epea amaitzen denean, enpresak eraitsi eta guztiz kenduko ditu. Hondakinak zaborteigira edo aurreikusitako den lekura eramango ditu, eta okupatuta egon den lurra leheneratu egingo du, jatorrizko egoerara itzul dadin. Kokalekua leheneratzeko lanetan, nahitaez, epigrafe honetako E) apartatuan adierazitako zereginak egin beharko dira, hurrenkera berean: lurra mugitu, moldatu eta taxutu, profila berreraikitze eta aldatutako gainazalak ingurunera fisiografikoki egokitzeko; lurra eskarifikatu eta destrinkotu, sakonera egokian; kalitate oneko landare lur geruza bat eman, gutxienez 30 cm-koa, eragindako gainazal guztietan; lurra landu, harrotu eta xehatu, behar bezala utzi arte, eta azkenik, ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezarri.

G) Komenigarritzat jotzen da foru aldundi honetako Natura Ondarearen Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen arloko jarraipena egitea era koordinatuan, bai eraikuntza aldundi eta bai lanak amaitzean; horri esker, ingurumena leheneratzeko ezarri diren neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna ebaluatuko da, eta gabeziak antzemanez gero, zuzendu ahal izango dira. Horri dagokionez, jarduketak bukatu ondoren, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete diren egiazta dezan.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Gorbeia Parke Naturalean telefono mugikorreko deien banagunea eraikitze proiektua"ren ingurumen inpaktuaren txostena egitea.

Bigarrena. Bat etorri abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin, ingurumen ebaluazioari buruzkoarekin, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO